



Denbora

3 Puntuak lotu



Zer ezkututzen ote da puntu horien atzean? Hartu arkatza, eta **hasi zenbaki guztiak ordenan lotzen.**

2 Itzalak

Tomax baserritarrak oso ongi eza gutzen ditu baserriko tresnak. Eta zuk? **Ba al dakizu itzal hauek zein lan tresnenak diren?**

Erantzunak: 2.-Sega, igitai, pala eta sardea. 3.-Olimpiar jokotako sua. 4.-1 eta 7 5.-Varsovia eta Polonia, Helsinki eta Finlandia, Nuuk eta Groenlandia, Lisboa eta Portugal, Amsterdam eta Herbehereak.


Txotxongilo dantzaria

Material gutxirekin, oinez, dantzan eta saltoka ibiltzen dakien panpina sor dezakezu. Jakin nahi al duzu nola? Segi argibideak!

Beharrezko materiala


- Guraizeak.
 - Pintzel luze bat.
 - Arkatz markagailu gorria eta beltza.
 - Zinta eranskor horia eta gardena.
 - Plastikozko sei edalontzi (bi urdin eta lau berde).
 - Plastikozko soka berdea.
 - Porespan bola bat.
 - Freskagarriak edateko bi lasto.
 - Plastikozko bi poltsa hori.
- Neurriak 4 x 26 cm.

Nola egin




1 Plastikozko bi poltsak hartu, eta luzetara eta erditik ebaki. Tamaina bereko lau zati geratu behar zaizkigu. Bi plastiko zati hartu, eta irekita geratu den aldetik bi korapilo egin. Hala, besoak lortuko ditugu.

2 Beste bi plastiko zatiei, berriz, bi edalontzi itsatsi zinta eranskorarekin. Edalontziak panpinaren oinetakoak izango dira, eta plastikozko tirak panpinaren zango luzeak. Zapaten ertz banatan ebaki txiki bat egingo dugu. Ebaki horiek txotxongiloaren sokak eusteko erabiliko ditugu.



3 Zangoak egiteko erabiliko ditugun plastikozko tira horiaren amaierak plastikozko soka berdearekin lotuko ditugu. 55 cm-ko soka izan behar du. Modu honetan, bi zangoak lotuta geratuko dira. Korapiloa egin ostean, 50 bat cm soka geratu behar zaizkizu sobran. Soka zati horrekin txotxongiloaren gorputza egingo dugu.


4 Plastikozko hiru edalontziri (bi urdin eta berde bat) zulo txo bana egin behar diegu puntzoi baten laguntzaz. Edalontzi urdinetako bat hartu, eta zangoak lotzen dituen soka berdea edalontziaren zulotik pasatu behar dugu. Edalontzia buruz behera jarri behar dugu.



-pasa

4 Bikiak

Maialenek, bere urtebetetzea dela eta, lagun bakoitzari gozoki bana oparitu dio. Denak ezberdinak zirelakoan zegoen, baina bi berdinak dira. Zein?





Varsovia
Helsinki
Nuuk
Lisboa
Amsterdam

Herbehereak
Groenlandia
Portugal
Polonia
Finlandia


5 Sagu Jakintsua

Bidaiatzea gustuko al duzu? Eta geografia? Lotu hiriburu bakoitza bere estatuarekin.





5 Hurrengo pausoa, soka berdea edalontzi berdetik pasatzea izango da. Soka pasatu baino lehen, ordea, plastikozko soka berdeari zinta eranskor zati bat ezarri behar diozu, edalontzi urdinetik 5 bat cm-ra. Azken edalontzia ezarri aurretik ere gauza bera egin beharko duzu. Zinta eranskorak edalontzien arteko distantzia gordetzen lagunduko du; hala, gure panpinak mugikortasun handiagoa izango du. Hiru edalontziak bata bestearen jarraian kokatuta, gure txotxongiloaren gorputza egingo dugu.

6 Beste edalontzi urdinari 3 bat cm-ko ebakiak egingo dizkiogu ertz banatan. Ebaki horietatik sartuko ditugu panpinaren besoak; ez ahaztu korapiloa ez duen alde sartu behar duzula ebakietatik.



7 Pintzel luze baten makila erabiliz, porespan bola zulatu alderik alde. Horixe izango da gure txotxongiloaren burua. Egindako zulotik gorputza egiteko erabili dugun soka berdea sartu. Ondoren, arkatx markagailu beltzarekin begiak eta sudurra marraztu, eta arkatx markagailu gorriarekin, berriz, ahoa.



9 Freskagarriak edateko bi lasto hartu, gurutze bat egin, eta lotu zinta eranskor horiarekin.

10 Txotxongiloaren kapelatik irteten den soka lastoekin egindako gurutzearen erdian lotu. Besoetatik datozen bi sokak lastoen alde batean itsatsi zinta eranskorarekin. Zangoetatik datozen beste bi sokak, berriz, bakoitza lastoaren alde batean itsatsi. (Ikusi irudia).

8 Azken edalontzi berdeari ere zulo bat egin, eta bertatik soka berdea pasatu. Edalontzia buruz behera jarri behar dugu. Horixe izango da gure txotxongiloaren kapela. Ondoren, 90 cm-ko 2 soka zati moztu, eta 50 cm-ko beste bi. Sokarik luzeenak zapatetan egin ditugun ebakietatik pasatu, eta ongi itsatsita gertatzeko, zinta eranskorra erabili. Txotxongiloaren eskuetan bi zulo txiki egin, eta sokarik laburrenak zuloetatik pasatu ostean, lotu.

